

GURE ENPRESAK BEZEROEKIN IZANGO DUEN HARREMANA

Gure enpresak bi segmentueekin harreman berdina izango du, gertuko harreman bat sortzen ahaleginduko gara. Baina egia da, gazteak web orrian bilatzeko erreztasun gehiago izango dutela, eta gehienei sare sozialen bidez iritsiko zaie gure dendaren existentzia, beraz, gure harreman gehiena online bidez izango da. Aldiz, gurasoak agian ez dute erreztasun berdina izango web orrian aritzeko, gurekin kontaktatzeko edo sare sozialetatik bilatzeko, horregatik, harreman gehiena presentziala izango da, beraiekin dendan hitz egingo dugulako.

Lehenik eta behin, bezeroei jakinaraziko diegu haien beharrak asetzeko prest gaudela, eta laguntzaren bat behar badute gure zerbitzuaz aprobetxatzeko, lasai asko laguntza eskatu dezaketeela. Gainera, arropa-aholkularitza eskainiko dugu behar duenari, zergarik inposatu gabe. Bestalde, web-orritik ere erreklamazioak eta galderak bidali diezazkigukete, eta enpresak ahalik eta azkarren erantzungo die galdera horiei. Gure bezeroak oso garrantzitsuak dira guretzat, eta horregatik haien iritzia eta kezak entzutea beharrezkoak dira guretzat.



Lehen esan bezala, bezeroak erakarriko ditugu sare sozialen bidez, hor bideoak eta argazkiak igoko ditugu eta hau batez ere gazteak erakarriko ditu, gehiago aritzen direlako sare sozialetan. Bestetik, telebistan publizitatea jarriko dugu, eta hemen seguraski gurasoak izango dira adiago daudenak. Eta azkenik kalean zehar gure dendari buruzko kartelak jarriko ditugu, gure negozioa erakutsiz hortik pasatzen den jendearentzat, eta hemen bi segmentuei berdin erakarriko die.

Gure bezeroei bazkide-txartel bat eskaintzen diegu, eta bertan deskontuak eskaintzen dizkiegu gure produktuetan. Erosketa bakoitzeko puntuak ere gorde ahal izango dituzte, etorkizunean deskontuak egin ahal izateko. Urtean pertsonalizazio kopuru bat egiten badu, jantzietan deskontuak ere jaso ahal izango ditu.



BERRI-TU



Arropa lortzeko, eta, aldi berean, bezero gehiago eta jendearekin gertutasuna lortzeko, postu bat jarri dezakegu Donostiatruk prestatzen duen azoka txikian. Jendeak arropa eraman dezake gure postura, eta, horrela, guk jasotzen dugun arroparekin lan egiteko aukera izango dugun bitartean, haiek munduaren erreziklazioan eta, era berean, babesmenean parte hartuko dute. Modu honetan, gure negozioa ezagutzera eman dezakegu, eta bezero gehiago lortu, bereziki, ekologistak diren gurasoen eta gazteen artean.